

Arte Ederretako ikasleen ustez EHU eta Hezkuntza dira istiluen errudun

Bi erakundeon «utzikeria» eta Ertzaintzaren jarrera salatu dituzte

EHUko Arte Ederretako Fakultateak bizi duen egoera larria —ikasle atxilotu eta kolpatuak— Hezkuntza Sailak eta Unibertsitateak «dagozkien betekizunei aurre egin ez izanaren» ondorio dela adierazi zuten atzo bertako ikasle eta irakasleek.

G. AGIRRE / BILBO

Arte Ederretako Fakultateko ikasle eta irakasleen biltzarrek gogor salatu zuen joan den asteazkenean Ertzaintzak Arte Ederretako Museoaren aurrean kontzentratu ziren ikasleen kontra erabilitako «indarkeria».

Ikasleek atzo goizean Museo-ko sarreran eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zutenenez, «behar ditugun bost irakasle euskaldunak eskatzeko azken asteotan egin ditugun ekintzekin segituz, 200 bat ikasle Bilbora etorri ziren atzo era baketsuan Museoan okupatzeko. Arrazoi teknikoengatik Museoan itxita zegoela esan ziguten. Honen aurrean, talde txiki batek eskailera batzuek zuten Museo-ko teilatutik pankarta bat eskegitzeko. Horrek Ertzaintzaren eraso batasia eragin zuen, zazpi lagun atxilotuz eta zenbait zaurituz».

Informazio hau lantzerakoan atxilotua zegoen pertsona bakarra P.S. 21 urteko gazteak epailearen aurrean deklaratu behar zuten eta arratsean aske utziko zutela espero zen.

Arte Ederretako ikasle eta irakasleek salatu zutenenez, «Unibertsitateak dituen arazoan konponbideari bide administratiboa ixteak gatazka bultzatzea da, edozein gai ordena publikoko arazo bilakatuz. Edozein manifestaldiren aurka biolentzia erabiltzeak, Ertzaintzaren presentzia aurikusiz, agerian uzten du hezkuntza hobe baten eskaera zizlegia zigortzen duen Administrazio baten jokabide zapaltzailea».

Iturri berberak zehaztu zutenenez, «arazo hau ez dute ikasleek sortu, baizik eta Unibertsitatean



Museora ezin sartuta atarian eman zuten prentsaurrekoa. X. SIMAL

Protestaldiak Hegoaldean

G.A. / BILBO

■ Ikasle Abertzaleak taldeak EHU eta NUPen grebarako deia egin du eta Irakaskuntza Ertzaintzaren, hamaiketarik aurrera geldialdiak egitera deitu du Arte Ederretako ikasleek Ertzaintzaren aldetik jasan dituzten atxilotu eta erasoak salatzen. Manifestaldiak antolatu ditu gaur eguerdiko hamabietarako Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan.

IAK elkartasuna adierazi zien atxilotutako Arte Ederretako ikasleei baita, klaseak euskaraz izatearen alde mobilizatu direnei ere. Hezkuntza Saila eta Errek-

euskarazko irakaskuntza normaltzeko politika ezak. Horren ardura, azken batean, Hezkuntza Sailarena da».

Otsailetik Fakultateak bere eskaerak era baketsuan bideratu dituen arren, EHU eta Hezkuntzaren erantzuna beti ezezkoa izan dela salatu zuten. Baliabide administratibo guztiak agortu ondoren, Arte Ederretako Fakultateak «indarra erabiltzea beste biderik» aurkitzen ez duela jaki-

toretza salatu zituen EHU Euskalduntzeko Plana ez betetzeagatik eta elkarrizketarako agertu dituzten jarrera «itxiengatik».

«Gure eskubideak defendatzeko ikasleek dugun bide bakarra», gehitu zuten IAKo kideek, «mobilizazio eta presioa da, Sail eta Errektoreek ez baitute irtenbide negoziatuaz ulertzen».

Irakasle euskaldunen gabezia Nafarroa zein EAEko irakaskuntza sistemak duen arazoa dela esan zuten iturri berberak. Arazoa Sail eta Errektoreek irakaskuntzaren benetako euskalduntzea bultzatzeko duten «borondate eza» dela azpimarkatuz.

narazi zuten. Egoera salatzen Fakultate honek greba egingo du datorren astelehenera arte.

Arte Ederretako ikasle eta irakasleek arazo honi behin-betiko irtenbidea emateko eskatu zieten Gasteizko Hezkuntza Saila eta Unibertsitateko Errektoretza taldeari. Arazoa «desbideratu ezik», euskarazko irakaskuntzarako urte anitzeko plana onartzea aldarrikatu zuten, «aurrekontuaz hornituriko plana».


Senatuak ez du onartu intsumisoak zigorrik gabe uzteko Earen mozioa

IRUÑA

Asteazken gauean eztabaiatu zen Espainiako Senatuan Eusko Alkartasunak intsumisoak kartzela zigorrik gabe uztearen alde aurkeztu zuen mozioa. Ekimenaren kontra, ordea, botu gehiago atera ziren, PSOE eta CIUren 117ak, hain zuzen. Beste guztiek, 101, alde botatu zuten baina ez zen nahikoa izan mozioak aurrera egiteko.

Estebe Petrizan EAKo Nafarroako senatoreak aurkeztu zuen mozioa eta bozketaren ostean pozik agertu zen lortutako botuekin. Honetaz aparte, «Defentsa Ministerioak Justizia eta Barne Ministerioei aurre hartu die intsumisoen kontrako kartzela zigorren gaian, saiatzen ari dira defendaezina den egoera bat mantentzen, kontutan hartu gabe gizartearen duen aurkakotasuna», adierazi zuten naparrak.

Bere ustez, alderdi sozialistak Senatuan erakutsi duen jarrera «kontraesanek betarik» dago, «Nafarroako sozialisten buruak kontrako azaldu duelako behin baino gehiagotan, kartzela zigorrak kendu eta irtenbide bat aurkitzearen aldekoak, hain zuzen». Sozialistek oso aukera ona galdu dute arazo honi ir-



Estebe Petrizan. JOXE LACALLE

tenbidea ematen hasteko, Petrizen hitzetan. Hala ere, Senatore naparrak ez du itxaropena galdu, «espero dut mozioaren kontra agertu diren taldeek jarrera aldatuko dutela eta kartzela zigorrak kentzea eskatuko dutela».

Kakitzat talde antimilitaristak, bestalde, mozioaren kontrako emaitza ezagutu eta gero azaldu du garbi geratu dela PSOE eta CIU arazoa konpontzeko duten borondate falta. Gobernuaren jarrera honek «balio handiagoa ematen dio intsumisoek hasi duten gose grebari eta kaleko jendeak erakusten duen jokaera antimilitaristari».

Hauta-proben auzian jarritako kereila gogor kritikatu du NUPEk

IRUÑA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gobernu Batzordeak gogor kritikatu du joan den astean EILAS eta LAB sindikatuak hauta-probetan izandako ustezko filtrazioagatik jarri zuten kereila. Hori dela eta, mozio bat onartu zuen Batzordearen bileran, «ez diogu kereilari zentzurik ikusten, gertakizunak ikusi eta gero, ez baitago fundamentorik horrelakoa aurkezteko». Era berean, Miguel Olmeda koordinatzailea eta Itziar Uriguen adminstra-

zioko langilearekin elkartasuna adierazi dute, eta garbi azpimarratu dute «irregularitasunen bat gertatuz gero, Unibertsitatea da kaltetuena eta zuzenketa egin beharko lukeena».

EILASek Uriguekin elkartasuna adierazi eta kereilaren kontrako jarrera erakusteko atera ziren sinaduren inguruan bere iritzia eman du. Uriguenen egin beharra aukeratutako azterketak frogak egin arte gordetzea dela esan du sindikatuak, «eta berak, gai honetan, ardura potentziala duela dio kereilak».

HILDAKOAK

ARABA

■ GASTEIZ Izaskun Bedia Lopez de Luzuriaga, 25 urte. Lucas Beltran de Gebara, 87 urte. Maria del Carmen Gatzategi Garza, 72 urte.

BIZKAIA

■ BILBO Pedro Zuazo Murgoitio, 88 urte. Amaia de Velasco Ibañez, 37 urte. Jose Luis Rey Iturbe, 56 urte. Alfonso de los Bueis Laviña, 60 urte. Juana Paz del Palacio, 88 urte.
■ ABADIÑO Donato Urien Armendia, 90 urte.
■ BERRIZ Inaki Lejardi Oregi, 28 urte.
■ DIMA Juana Pujana Beobide, 80 urte.
■ EA Maria Irusketa Gabikaetxebarria, 84 urte.
■ ERANDIO Agurtzane Landeta Mitxelena, 27 urte.
■ LEIOA Arantxa Telleria Ostolaza.
■ LEMOA Matias Gorritxo Zorroza, 67 urte.
■ MUNGIA Teresa Asla Gaubeka.
■ OROZKO Juan Astobiza Ugarriza, 71 urte.

■ SESTAO Enrique Ormaetxea Nafarrate, 66 urte.

GIPUZKOA

■ DONOSTIA Antonio de Esnarriaga Bocos, 76 urte. Guillermo Mensa Canturri, 88 urte. Lidia Oskoz Goñi. Lorenzo Pison Etxebarri, 82 urte. Juvencia Rodriguez Bajo, 79 urte. Alfonso Ruiz Reverte.
■ BALIARRAIN Roman Zubeldia Garmendia, 65 urte.
■ HONDARRIBIA Juana Maria Iriarte Aldakurru, 94 urte.
■ IRUN Natividad Aranburu Iturriza, 82 urte. Tanis Sanz Abarquero, 67 urte.
■ OIARTZUN Jose Ramon Olaziregi Ibarburu, 76 urte.
■ TOLOSA Meliton Elizegi Arregi, 74 urte.
■ ZARAUTZ Magdalena Amutxastegi Zendoia, 87 urte.

LAPURDI

■ AHURTI Jean Baptiste Badi, 10 urte.
■ ANGELU Philippe Gauna, 70 urte. HERNIETTE Hamm, 91 urte.
■ MIARRITZE Mayotte Bernatets, 89 urte.

■ UZTARITZE William Fourdrinier, 65 urte.

NAFARROA

■ IRUÑA Pilar Gabas Palacios, 84 urte. Aurea Martinez Ezkurra. Teresa Etulain Oskoz, 87 urte. Santos Mutiloa Irañeta, 67 urte. Maxima Larrea Perez, 75 urte. Javier Perez de Azanza Arroz. Maria Sainz Andres, 84 urte. Encarnacion Ibriku Monje, 86 urte. Pedro Irañeta Sasturain, 78 urte.
■ AITZOAIN Agustin Gracia Armendariz, 70 urte.
■ ANTZOAIN Charo Caballero Cillero, 18 urte.
■ ATARRABIA Ramiro Mendez Perez, 63 urte.
■ GERENDIAIN Teresa Etulain Oskoz, 87 urte.
■ UHARTE Rodrigo Urpegi Tejedor, 83 urte.

NAFARROA BEHEREA

■ JUTSI Jean Olha, 90 urte.
■ ORZAIZE Helene Elissetxe, 53 urte.

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:
ARRATSALDEKO

4ak arte: (943) 46 90 22
4etatik 7etara: (943) 37 15 45